

Kultura

Tarregako antzerki jaialdian estreinatuko du 'Andante' antzezlanaren Zornotzako Markeliñe taldeak > 14



Auto-stop egiteko ohitura desagertzeaz?

Duela urte batzuk ohikoa izaten zen Durangaldeko bide bazterretan jendea auto-stop egiten ikustea. Gaur egun ohitura hori desagertzeaz dagoen aztertu du ANBOTOk hainbat auto-stop egilarekin eta errepidea lan tresna duten profesionalarekin. > 2-3



Lehior Elorriaga.

“Tristura momentu batean inguruak lagundu zaitzakeela pentsatu nuen” > 10

Heriotzari buruzko gaietan espezializatua den *Adiós* aldizkariak estatuko hilerri onena zein den aukeratzeko antolatutako lehiaketako finalera sailkatu da Iurretako hilerria. Irailaren amaierara arte dago botoa emateko aukera (www.revistaadios.es). Angel Basabe Iurretako udal arkitektoa da kanposantuaren sortzailea. Aitortu duenez, ezohiko proiektua da arkitekto batentzat: “Leku honetara badakizu tristuraz heltzen zarela, eta, beharbada, inguruak lagundu zaitzakeela pentsatu nuen”.



EGYRANGA S.L.
PINU-EGUR SALEROSKETA
COMPRA-VENTA DE MADERA DE PINO

ZUBIALDE, S. A.
-ren hornitzaileak

Ander Lejarazu Marina
Tel.: 616 650 284

Durango > 4

2013ko udal kontu orokorreari helegitea jarri diela jakinarazi du EH Bildu koalizioak

Zaldibar > 6

Euskal Herriko zaldunak onenak bilduko dira asteburuan

Zornotza > 7

Jaialdi solidarioa antolatu dute Luis Urrengoetxeako tabernariak

Elorrio > 9

Udalatzeko AHTaren tunelean ez dago larrialdi irteerarik

errepidea... Sarritan ilarak sortzen ziren. Egun, oster, paisaia hori bestelakoa da. Gaitza da bide bazterrean baten bat auto-stop egiten ikustea. Desagertzeaz dagoen garraio ohitura da. Baina, zergatik? Erreportaje honetan galdera horri erantzun diote auto-stop egin izan duten edo hurretik ezagutu duten hainbat lagunek. Bestalde, oraindik atzamarra ateratzera ausartzen direnek ere badute esatekorik. Iker Solana abadiñarrak eta Eneko Iraeta zaldibartarrak Italiara egindako bidaiak kontatuko dute.

Ordu bi itxaron ostean, esperantzak zapuzten hasi zitzaizkien, kamioilari batek hartu, eta Hernanira eroan arte. Iraeta: “Gero, bikote euskaldun batek hartu, eta Lyoneraino joan ginen, 700 kolimetroan. Hor ikusi genuen posible zela. Erre-

Etixerako buelta ere auto-stop eginda egin zuten. “09:00etan egon ginen San Remon, eta 23:00etarako Landetan geun-

Anekdota ugari ekarri dituzte handik. Gazte bik furgoneta zahar batean hartu zituzten, eta bateria txarto zeukatela abisu eman zieten. Solanak kontatu du bide izkinan geratu zirela, ez atzera, ez aurrera. “Orduan, eurak ere hasi ziren auto-stop egiten, bateria bat erosten joateko”.

“Beldurraren gizartea”
 “Zergatik bajatu den garraio ohitura hori?”. Solanak aldaketak ikusten ditu: “Gaur egun ia jende guztiak dauka autoan joateko aukera. Gainera, lehengo errepideak, herriz herri, askoz hobe zeuden auto-stop egiteko”. Iraeta Gizarte Hezkuntzako ikaslea da, eta “beldurraren gizartea” aipatu du: “Beldurra botereak bultzatzen du, eta, horren bidez, kontrolatu egiten gaitu”. Ez hori bakarrik: “Gizarte indibidualista batean gaude, eta jendeak ez dauka laguntzeko borondate hori”.

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko irailaren 12a,
12. urtea - 557. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio buroa:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso
Armendia, Amaia Huarte Basabe,
Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri
Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri
eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zalao Fuertes, Lehior Elorriaga.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale



Lander Raya BEHARGINA (Durango)
Lohitzun Uriondo BEHARGINA (Durango)

Gaztetan sarri egiten zenu-
 ten auto-stopa. Zelako anek-
 dotak daukazue?

L.U.: Behin Txus Jaiok hartu
 gintuen, rallyetan ibiltzen den
 gidariak. Erletxetik Mungia-
 ra eroan gintuen, Ibilaldi ba-
 tera. Beste batean, Bergarara
txomin eginez joan nintzen,
 bakarrik, eta heltzean kuadri-
 llakoekin barik hartu nindu-
 tenekin egin nuen parranda.
 Deigarri izateko, globo pilo
 bategaz ere eginda nago. Gas-
 teiztik bueltan, banatzaile
 batek hartu gintuen, eta esan
 zigun: hor daukazue paste-
 lak, hartu gura duzue!

L.R.: Egunkari banatzailea-
 gaz ere bai. Parrandan, Gas-
 teizera, Iruñera... Sanfermi-
 netan zapia jantzi, eta atoan
 hartzen zaituzte! Atzamarra
 atera beharrik ere ez ia.

Parrandaz aparte astegune-
 tan ere egiten zen.

L.U.: Hemen normalena Elo-
 rriora edo Abadiñora joatea
 zen. Baina lanera ere joan
 izan gara, edo mendira.

L.R.: Institutukoak *txomin*
 eginda joaten ziren Elorriora.
 Guk hondartzara joateko egin
 izan dugu. Uda honetan ere
 egin dut, oporretan, Grezian;
 arraroa zen, atzamarra behe-
 rantz ateratzen dute eta.

Zergatik bajatu da?

L.U.: Arazo handiena da lehen
txomin egiten zuen jende asko
 orain ez duela inor har-
 tzen. Gero, kaleko zurrumu-
 rru asko ere sortu dira.

L.R.: Gaur egun partekatze-
 aukerak daude Interneten,
 baina *txomin* egiteak dauka
 xarma, abentura da!



Itsaso Basauri
 IRAKASLEA (Elorrio)

**Auto-stop egileak hartzen
 dituzu. Zergatik?**

Nik egin izan dudanean har-
 tu nautelako. Ez da ezer ere
 kostatzen. Gainera, hobeto
 da bidaia baten bategaz egi-
 tea, berbeta ematen du eta.
 Normalean jende jatorra
 hartu izan dut. Esperientzia
 txarren bat ere bai, baina
 gehienetan gustura joan izan
 naiz. Duela urte pilo bat gi-
 zon batek hartu ninduen, eta
 mendi irteera batean ezagu-
 tu ninduen gero!

Zergatik jaitsi da ohitura?

Dena dabil aldatzen, eta
 orain bakoitzak bere autoa
 dauka. Indibidualago joka-
 tzen du jendeak. Bakarrik
 joatera ohitu gara, eta kultu-
 ra hori galtzen dabil.



Felix Urizarbarrena
 KAMIOILARIA (Berriz)

Hartzen al duzu jendea?

Gaztetan atzamarra asko ate-
 ratakoa naiz. Berandutzean,
 goizaldean... Baina kamioia-
 gaz ez dut jenderik hartu,
 beharrekoa beste gauza bat
 da. Behin ingeles bi hartu
 nituen Donostian, baina oste-
 rantzean ez.

**Zer aldatu da auto-stop
 egile kopurua bajatzeko?**

Gurasook, lehen *arrisku-
 tsuak* ginenok, seme-alabak
 gehiago babesten ditugu. Ta-
 xirako dirua ematen diezu,
 zu bila joan behar ez izateko.
 Gainera, gaur egun edozei-
 nek dauka autoa. Lehen-
 go, batez ere parrandarako
 izaten zen atzamarra. Nire
 ustez, auto-stopa desagertu
 egingo da.



Aitor Balier SOLOZABAL
 AUTOESKOLA (Iurreta)

Legala al da auto-stopa?

Autobidean ezin da oinezko-
 rik ibili. Han sartu orduko
 egin ahal duzu, baina ordain-
 leku inguruan-eta debeka-
 tuta dago. Bide nazionaletan
 egin ahal da, baita jaso ere.

Jaitsiera igarriko zenuen.

Lehenago, jaietara joateko
 askotan egiten zen. Adibidez,
 Elorrioko jaiak direla-eta,
 Montorretan ilara bat egoten
 zen. Orain autobusak daude,
 eta errefortzuak ipintzen
 dituzte. Aukera gehiago da-
 go garraio publikoagaz. Nik
 uste dut mesfidantza ere ba-
 dela. Gauza asko entzun dira
 telebistan, hau desagertu
 dela, honi hau egin diotela...
 Auto-stopa asko bajatu da;
 %80 inguru esango nuke.

Ardi Jaia ospatuko dute bihar, baserria herritarrei hurreratzeko

Laugarren edizio honetan, Durangon eta Atxondon egingo dituzte ekintzak

DURANGALDEA M.O.

Usadiozko landa munduko bizi-
 modua herritarrei hurreratze-
 ko asmoz, aurtan ere ospatuko
 da Ardi Jaia. Laugarren edi-
 zio honetako hitzordua bihar
 izango da, eta Durangon eta
 Atxondon antolatu dituzte ekin-
 tzak. Egunari izena eman arren,
 ardiak bakarrik ez, baserriko
 beste arlo eta produktu batzuk
 ere ezagutaraziko dituzte. Ge-
 rediaga Elkartea, Dendak Bai

eta Urkiola Landa Garapena
 elkarteak dira Ardi Jaiaren anto-
 latzaileak.

Bihar, beraz, Durangon ha-
 siko da egitaraua. Goizean, ba-
 serritarren azoka ipiniko dute
 udaletxe aurreko plazan, eta
 hainbat produktu egongo dira
 ikusgai zein salgai. Gero, egue-
 riko 12:00etan, transhumantzia
 erakustaldia egingo dute kale-
 tatik. Artzainak artaldeekin ibi-
 liko dira, mendira egiten duten

bidea islatzeko. Antzinako ogi-
 bidea erakutsi gura dute modu
 horretan. Frai Juan Zumarraga

Eguerdiko 12:00etan,
 transhumantzia
 erakustaldia egingo
 dute kaleetatik

kaletik hasi, eta Alde Zaharre-
 ra igoteko dira; gero, Askatasun
 etorbideetik egingo dute buelta.

Arratsaldean, txapelketa

Axpen jarraituko du jaialdiak
 Euskal Herriko Artzain Txaku-
 rren Txapelketagaz. Dagoene-
 ko, 48. edizioa izango da Elizalde
 inguruko landetan. 17:00etatik
 aurrera, artzainik onenak ikus-
 teko aukera egongo da. Izan
 ere, Euskal Herriko zazpi pro-
 bintzietako txapeldunek eta
 txapeldunordeek parte hartuko
 dute. Gainera, iazko garailea ere
 bertan egongo da, txapela defen-
 datzen.



Artzain txakurren txapelketa, aurreko edizio batean. Txelu Angoitia (Gerediaga).

Ekoden

Gure klinikan
Diagnostiko
Aurreratua egiteko

HORTZ
SCANNER-a
 darabilgu

80€

Bigarren planifikazioa
 zure inplanteetarako
Sistema berria gure eskualdean

INPLANTE
BEREZIAK

15%
 -rainoko
DESKONTUAK

WEB GUNEKO
 TARIFETAN
 Kontsultatu gure
 tarifak hemen:
www.clinicaekoden.com

* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketetarako,
 banku-finantzaketa kudeatzen dugu.

36
HILABETE
 ARTEKO
 FINANTZAKETA
 INTERESIK
 GABE*

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

R.P.S. 44 / 14

2013ko udal kontu orokorre helegitea jarri die EH Bilduk

EH Bilduk dio udaleko soberakina ez dela positiboa, negatiboa baizik



Iker Urkiza, Eider Uribe, Dani Maeztu eta Jon Bingen Landabidea zinegotziak, prentsaurrekoan.

DURANGO Markel Onaindia EH Bilduren (Bildu eta Aralar udal taldeak) arabera, laster hasiko da ordenantza fiskalak eta aurrekontuak lantzeko eztabaida, eta hori baino lehen udalaren egoera ekonomikoaz informatu gura izan ditu herri-tarrak. EAJ eta PSE-EE egon dira kritiken jo puntuan. “Egingo ez diren obra edo inbertsioak plazaratuz herri-tarrak berriz engainatu baino lehen, gauzak argi utzi behar direla deritzogu”. Udalak zenbait egitasmo garatu barik dauzka urtetan,

eta, EH Bilduren ustez, horretarako erabili bako kredituak ezin dira soberakin gisa kontuan hartu. Gaur egungo egoera “urtetako kudeaketa txarraren ondorio” dela diote.

Kontu orokor ofizialak dio 1,9 milioi euroko soberakin positiboa daukala udalak. Baina EH Bilduk adierazi du, kalkulua egitean foru araua jarraituz gero, negatibo ematen duela, -360.000 euro hain zuzen ere. Antza denez, jaso bako kreditu batzuen zati bat aurrezki lez hartu dute udalean, baina kredi-

tu hori zalantzazkoa izanik, ezin ei da kalkularako erabili.

Horretaz gainera, udalak banketxeekin 7,8 milioi euroko zorra daukala argitu dute EH Bildukoek. Kontu-hartzaileak ere kontu orokorrean bertan islatu du hori, baina jeltzaleek datua ezkutatu dutela uste dute.

Horregatik guztiagatik, herri-tarrak informatzeko “garrantasun ekintza” bat egitea proposatu dio Uribek gobernu taldeari. Jardunaldi zabal bat egitea eskatu dio herritarren partaidetzagaz.

Ertzaintzak adierazi du 50 euroko billete faltsuak agertu direla Durangon

Bost billete topatu dituzte Alde Zaharreko dendetan

DURANGO M.O.

Azken egunetan, 50 euroko billete faltsuak agertu dira Durangon. Ertzaintzak jakinarazi duenez, momentuz bost billete topatu dituzte. Herritarrei abi-

satu gura izan diete, eta batez ere merkatariei. Alde Zaharreko komertzioetan erabili dituzte billete faltsuak, eta merkatariaiek eurak izan dira salaketa ipini dutenak. Komertzioetako dirua

jasotzen duten banketxeetatik ere heldu da abisuren bat.

Ikerketa martxan

Ertzaintzak ikerketa hasi du iruzur egileak harrapatzeko, eta ohartarazi du inguruko herrietara ere zabaldu ohi direla horrelako iruzurrak.

Bestalde, dei berezia egin die merkatariei, billete faltsuen inguruko kontrola handitu dezaten. Horrelako billete bat jasoz gero, Ertzaintzagaz hartu-emanetan ipintzeko eskatu dute.

Bidegorria Aramotz auzunera helduko da ikasturte honetan

2020rako 22 km-ko bidegorria eraiki gura dute

DURANGO M.O.

Durangoko bidegorria beste fase batean sartuko da, eta Aramotz auzunera ailegatuko da. Mugikortasun Jasangarriaren Astearen harira egindako prentsaurrekoan baieztatu du hori Aitor Larruzea teknikariak. Izan ere, hilaren 16tik 22rako astean hainbat ekintza egingo dituzte, eta asko bizikletaren erabilera lotuta daude. Mugitzeko era jasangarriagoen bila, Durangon bizikletaren erabilera bultzatu gura dute.

Herrian hamaika kilometroko sarea dago eraikita bizikletentzat, eta 2020rako 22 kilometroko zirkuitua osatzea da udalekoen helburua, Larruzearen berbetan. Aramotz auzunera ailegatuko den zatiaren obra hurrengo hiru hilabeteen buruan aterako dute lehiaketa- ra, eta, beraz, ikasturte honetan garatuko da. Askatasun etorbidetik Aramotzeko etxetara luzatuko da, eta Iurretako zubitik datorren erreia Baqué enpresa inguruetara joango da, Ambrosio Meabe kaletik. Larruzeak gogoratu du eboluzio handia eduki duela bidegorriak, 2007an 600 metrokoa bakarrik zen eta.

Stop Accidentesi saria

Aurtengo mugikortasunaren saria Stop Accidentes elkarte-ri emango diotela aurreratu du Iker Oveja zinegotziak, kontzientziazioan egiten duen lanagatik. Gainera, gaiagaz lotuta, lehiaketa artistiko bat egin dute, eta Karlos Martinezek jasoko du 700 euroko saria. Datorren astean Mañaria errekan egongo da ikusgai bere obra; aldaketa klimatikoaren eraginez errekan gora etorriko den balea bat islatuko du.

Lego jolasagaz

Hilaren 19an ziklisten eta oinezkoen arteko mugikortasun gatazka aztertuko dute Lego jolasaren piezen bitartez, Lego Serious Play metodoagaz hain zuzen. 20an, 10:00etatik aurrera, tailerrak eta jinkanak egingo dituzte Ezkurdin. Amaitzeko, hilaren 22an, Stop Accidentesek ikasleentzako kontzientziazio saioak eskainiko ditu, eta Duranguesa txirindulari elkarte-koek olinpiadak antolatuko ditu Tabiran, 17:45ean. Ekintzok prestatzeko, Berdeago azoka antolatzen duen elkartearen laguntza edukiko dute.



Larruzea, Oveja eta Iñigo Peña (Berdeago azoka).

hitz

liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT
MEMORIAK, MIKEL LABOAREN BIOGRAFIA BAT Marisol Bastida (2014)

UME ETA GAZTEENTZAT
HAIZEA SAHATS ARTEAN Kenneth Grahame (2013)

MUSIKA
EROLUTION Ghetto (2013)

Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa


Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak

flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



anboto
lagunak

EROSKI bidaiak
Anetsetan? Egizu lagun!

Zorionak
Libe Mimenza!
'Anbotoren lagun' direnen artean Eroski Bidaiak agentziaren eskutik Las Caldas de Villa Termal bainuetxean bi lagunentzako zotz egin dugun asteburua zuri egokitu zaizu.



hazi
LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO



Hazi fundazioak emandako Eusko Labeldun produktuen bi otzara zotz egingo ditugu datorren astean 'Anbotoren lagun' direnen artean. Egin zaitez 'Anbotoren lagun', eta parte hartu gure zozketan!

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!
Lagun egiteko 3 aukera dituzu



anboto@anboto.org



946 816 558



Izen-deiturak

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefona

Anboto komunikabideak - DHK · Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA

anboto
lagunak

Euskal Herriko zaldunik onenen erakustaldia bihar, Olazarren

35 parte-hartzaile ariko dira Euskal Herriko Cattle eta Team Penning finalean

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Seigarren urtez, Zaldibarko Olazarren atonduko dute Euskal Herriko Cattle eta Team Penning lehiaketaren finala jokatzeko eremua, bihar. Zaldi gainetik ganadua ondoen eurek gobernatzen dutela erakustea izango dute helburu Euskal Herriko 35 zaldunek.

Goizean, 11:00etatik aurrera, Cattle Penning izeneko modalitatean lehiatuko dira zaldunak: banan-banan aterako dira zaldunak hamar behiko taldea gidatzera; gero, epaileak emandako zenbakia duen behia dagokion itxiturara bideratu beharko dute zaldunek. Saio horren ostean, 13:30ean, Reining erakustaldia egingo dute partaideek, ikusleen gozamenerako: zaldiaren eta zaldunaren arteko

ezagutzaren eta kontrolaren erakusle diren ariketak egingo dituzte eguerdian.

Arratsaldeko saioan, berriz, taldekako lehiaketan jardungo dira parte-hartzaileak 16:30etik aurrera: Team Penning izene-

Goizean, Cattle Penning izeneko modalitatean lehiatuko dira, eta taldeka arratsaldeko saioan

Zaldiaren eta zaldunaren arteko ezagutza eta kontrola erakusten duten ariketak egingo dituzte

ko saioa izango da Olazarren. Hiru zalduneko taldetan ariko dira ekinaldi horretan: 30 behi gobernatzen saiatuko dira zaldunak; batetik hamarrerako zenbakiakin markatuta egongo dira behiak, eta epaileak agintzen duen zenbakia duten behiak batu eta itxituran sartzea izango da egitekoa.

Lehiaketako saioak amaituta, 20:30ean egingo dute sari banaketa ekitaldia. Zaldibarren erabakiko da zein diren Euskal Herriko zaldunik abilenak.

Euskal Western Elkarteak eta Euskal Hipika Federazioak Zaldibarko Udalaren babesagaz antolatuko dute biharko hitzordua. Hain zuzen, udalak ekimenari laguntzeko daukan prestatutasuna azpimarratu du hitzorduaren antolatzaileek.



Olazarren egin dute azken bost urteotan lehiaketa hau. Delfin Zubizarreta.

Eraikin berrian abiatu dute ikasturtea Zelaieta auzoko eskolan

1.138 metro koadroko azalera dauka eraikin berriak

ABADIÑO I.E.

Aurreikusitako baino luzeago joan diren obrak amaituta, 2014-2015 ikasturtea eraikin berria estreinatuta abiatu dute Zelaietako eskolan. Udalak eraman du obra aurrera, eta Eusko Jaurlaritzak aurrekontuaren %60ko ekarpena egin du. Beheko solairuan 0 eta 2 urte artekoentzako lau gela atondu dituzte, eta lehenengo solairuan unean uneko premien arabera Haur Hezkuntzako bigarren zikloko haurrak edo Lehen Hezkuntzakoak hartzeko baliatu ahalko dituzten beste bost gela daude.

Gobernu taldeak adierazi duenez, udalarentzat lehentasunezkoa izan da herriko esko-

laren beharrianak asetzea, eta "egindakoarekin harro egoteko" arrazoiak daudela esan du Jose Luis Navarro alkateak.

Udalak egin du obra, eta aurrekontuaren %60ko ekarpena egin du Eusko Jaurlaritzak

Abadiñoko alkateak gogorarazi duenez, orain arte "barrakoieta" egon da Zelaieta auzoko Haurreskola, eta Abadiñoko Udalak hilean 3.500 euro ordaindu du azpiegitura horren mantentze-lanetarako.



Atondu duten geletako baten irudia.

Hiru eguneko egitaraua prest Aitte Kurutzeko jaietarako

ABADIÑO I.E.

Gaur, bihar eta etzi ospatuko dituzte Aitte Kurutzeko jaiak Zelaieta auzoan. Hiru egunetarako egitaraua prestatu du, horretarako, auzoko Jai Batzordeak. Pijama eta Kamisoi Eguna ospatuko dute gaur, eta umeen eta helduen ohiturazko patata dantza egingo dute, besteak beste, 19:00etan jaiaren hasiera iragartzen duen Donien Atxa altxatu, eta 20:00etatik aurrera Lotxogaz erromerian dantzatu eta gero.

Pijama eta Kamisoi Eguna ospatuko dute gaur, 19:00etan Donien Atxa altxatu ostean

Jolasean eta jan-edanean igaroko dute jaietako bigarren eguna, bihar: umeentzako tailerrak, txirikila jokoa, eta ugarixo eta tortilla txapelketak egingo dituzte, esaterako.

Domekan, San Fermin jaiak gaitzat hartuta, Mozorro Eguna ospatuko dute Aitte Kurutzeko jaietan. Prozesioa egingo dute 11:45ean, herri bazkaria 14:00etan, eta entzierroa 17:00etan. Etxilimoren erromeriagaz emango dituzte aurtengo jaiak amaitutzat.

Euskaraz bizitzera animatzeko lehiaketa

Bideo laburren lehiaketa sortu du Euskara Batzordeak

BERRIZ Amaia Ugalde

Euskaraz nahiago, eskerrik asko kanpainaren harira, bideo laburren lehiaketa antolatu du Berrizko Udaleko Euskara Batzordeak. Gehienez bi minutuko bideo laburrak grabatu beharko dituzte parte-hartzaileek. Berrizen erosketak euskaraz, kirola euskaraz edo, beste barik, kalean euskaraz egitera animatu beharko dute bideoek.

Azaroaren 7ra arte dago bideoak aurkezteko aukera. Saria tableta elektronikoa bat izango

da, edo haren prezioa duen erosketa txartel bat, Berrizko dendetan edo jatetxeetan gastatzeko.

Sari bi izango ditu lehiaketak. Lehenengoa herritarrek emandakoa izango da. Azaroan, institutuan eta Kultur Etxean ikusi ahalko dira lanak, eta gogokoena bozkatu ahalko dute. Bigarren saria epaimahai batek emango du; bertan egongo dira Euskara Batzordeko, merkatarien elkarteak, kirol arloko, gaztelekuak eta euskaltegiko ordezkari bana.

Zaintza zerbitzua martxan da eskolan

Egun solteetan edo ikasturte osoan joan daitezke umeak

MALLABIA Jone Guenetxea

Ikasturtea hasteagaz batera, Learreta-Markina herri eskolako zaintza zerbitzua eskaintzen dihardu. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umei zuzendutako zerbitzua egun solteetan edo ikasturte osoan jasotzeko aukera dago.

Lana eta familia bateratzen Zerbitzuaren helburua da umeak eskolara sartzeko ordua baino lehen lanera joan beha-

rra duten gurasoei lana eta familia bizitzaren bateratzeko aukera eskaintzea. Zerbitzuaren ordutegiari dagokionez, goizez eskaintzen da, eskola ordutegiaren aurretik, 07:30etik 09:30era. Ondoren, umea bere gelara joaten da eguneko eskolei ekiteko. Prezioari dagokionez, ume bat duten familiek 60 euro ordaintzen dute hilean, eta, bi dituzten kasuan, bigarren haurrak 40 euro; egun solteetan doazenez, berriz, 7 euro eguneko.

Kofradia Egunak 300 bat iurretar elkartuko ditu Laixiarren

Domekan Kofradia Eguna ospatuko dute Laixiarreko zelaian; kofradien urteko kontuen berri ematea aitzakia polita izaten da jai giroan elkartzeko



Dantza taldekoek kaleko arrokekin jantzita egiten dute dantza entsegua.

❖ IURRETA Amaia Ugalde

Irailako bigarren domeka egun berezia izaten da iurretarren-tzat. Herriko sei kofradiak batu-

ko dira, eta urteko kontuen berri emango dute Kofradia Egunean. Iurretako kofradia guztietatik joandako jendea batzen dela

aprobetxatuta, jai egun berezia izaten da: iurretar batzuentzat ez domeka bakarrik; izan ere, jaiaren aitzakiaz kanpin-denda

hartu, eta asteburua Laixiarren pasatzen dute hainbatek.

Eguerdiko 12:00etan hasiko dute egitaraua, mezagaz. Gero, kofradiek batzar nagusia egingo dute kontuen berri emateko. Basoen egoera ere hartuko dute ahotan. Bixente Narbaiza Kofradien Batzordeko presidentek azaldu duenez, “nahiko osasuntsu” daude basoak. Duela urte bi onddoek eta pinu-beldarrak pinu asko gaixotu zituzten, eta orain, entresakak eta produktu kimikoak bota eta gero “arazoa nahiko konponduta dago”. Aurten Kofradien Batzordean 24 urte egin zituen Juan Duandikoetxea omenduko dute.

Bazkaria eta parranda

Batzarraren ostean Mikel Deuna dantza taldeak sanmigeletarako dantza entsegua egingo du, eta Iurretako bertsolariek saioa eskainiko dute. Bazkaritarako elkartuko dira gero. Urtero 250-300 herritar batzen dira. Janaria etxetik eroaten dute eta edaria kofradiek ipiniko dute. Umeen-tzako jolasekin eta erromeria-gaz amaituko dute eguna.

Pirritx eta Porrotx etortzea kritikatu du Iurretako PPK

❖ IURRETA A.U.

Irailaren 19an urteroko emanaldia eskainiko dute Pirritx eta Porrotx pailazoen pilotalekuan. Ekitaldi horren aurrean, beste urte batzuetan egin duen legez, Iurretako PPK kontratazio hori kritikatu du; “ez dira etika demokratikoaren eredu umeentzat”.

Kultura Batzordeak atzoko batzarrean landu zuen gaia. Pailazoak ekartzeko Jai Batzordeari 3.500 euroko diru-laguntza ematea bozkatu zuten. EAJk, Bilduk eta PSE-EEk alde bozkatu dute, eta PPko Nacho Tocak, berriz, kontra. Tocak prentsa ohar bidez adierazi duenez, “clown bikotea beti agertu da ETako presoan alde, eta babes hori umeei zuzendutako antzezlan askotan irudikatzen dute. Jarrera horiek euren lana baliogabetzen dute”.

Gazteentzako diru-laguntza, alokairua ordaindu dezaten

Eskabideak aurkezteko urri osoa izango dute Iurretako gazteek; iaz hiruk jaso zuten laguntza

❖ IURRETA A.U.

Gazteei alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzeko diru-laguntza emango du aurten ere Iurretako Udalak. Iurretan erroldatutako 18 eta 35 urte arteko herritarrek eskatu dezakete laguntza hori. Eskaria egiteko epea laster hasiko da; urriaren 1etik 31ra aurkeztu ahal da eskabideak.

Etxebizitza Iurretan bertan duten gazteentzako laguntza da. Udalak 6.000 euro gorde ditu alokairuak ordaintzen laguntzeko, eta alokairu osoaren erdia ordaintzeko izango litzateke laguntza. Gehienez, hilabete bakoitzeko 250 euroko diru-laguntza emango dio udalak eskaera egiten duen gazte bakoitzari.

Iurretan erroldatutako 18 eta 35 urte arteko herritarrek eskatu dezakete laguntza

Eskabideak egiteko

Iaz hiru gazte eskuratu zuten alokairuak ordaintzeko laguntza. Eskabideak egiteko oinarriak udaletxean bertan eta www.iurreta.net udalaren webgunean aurki daitezke. Kontuan hartzen dituzten baldintzen artean daude, besteak beste, eskatzailearen diru-sarrerak kopurua eta alokairu kontratuaren epea.

Familien dinamika hobetzeko ikastaroa

❖ IURRETA A.U.

Iurretako Anderebide Elkar-teak *Familia dinamika hobekuntza* ikastaroa antolatu du. Irailaren 17tik aurrera, eguaztenetan emango du ikastaroa Eskarne Larrinaga terapeutak, 16:00etatik 18:00etara. Hogei saioko ikastaroa izango da, eta Goiuria kulturgunean eskainiko du.

Astelehena, irailaren 15a, izango da izena emateko azken eguna. Anderebide telefono zenbaki bat utzi du izena emateko: 616 490 506. Ikastaroak 20 euro balioko du elkarteko bazkideentzat. Bazkide ez diren iurretarrantzako prezioa 25 eurokoa izango da, eta besteek 30 euro ordaindu beharko dute izen-ematea.

Gaztetxearen etorkizuna definituko dute gazteek

Gazte asanbladako kideek eta herriko hainbat kuadrillek gaztetxeari buruz hausnartuko dute

❖ OTXANDIO Joseba Derteano

Otxandioko gaztetxearen etorkizuneko funtzioei eta funtzionamenduari buruzko hausnarketa eta eztabaiada egingo dute bihar herriko gazteek, etorkizunari begirako oinarriak ezartzeko. Gazte asanbladako kideak eta herriko gazteek osatutako hainbat kuadrilla Zelaixeta izeneko txabolan (futbol zelaiaren ondoan) batuko dira egun osoko jardunaldian.

Gaztetxearen bueltan dabilen gazte kopurua jaitsi egin da azken urteetan, gazte asanbladako kideek adierazi dutenez, eta, horretaz gainera, beharrezko ikusten dute gaztetxeari norabide zehatz bat ezarriko dion hausnarketa bideratzea. Horiek

horrela, herriko hainbat gazte kuadrillarekin batzartu dira, eta prozesu horren ondorio da biharko jardunaldia.

Ezagutza eta konfiantza jolasekin hasiko dute eguna, bihar batuko diren gazteak elkar eza gutzen hasteko. Eta, ondoren, lanari ekingo diote. Goizean, gaztetxeak orain arte egindako bidea zein izan den azalduko dute, eta *gazte asanblada* eta *gaztetxea* kontzeptuak esanahiz jantzen saiatuko dira.

Eguerdiko luntxaren ostean, 13:30 inguruan hasiko dute batzarrik inportanteena bertaritzen direnek: Otxandioko gazte asanbladaren eta gaztetxearen etorkizuna definitzeko batzarra, hain zuzen.



BOE BATERAKO BALDINTZA GUZTIAK BETETZEN DITUZU?

Etxebizitza, garajea eta trastelekua 139.590 eurotik hasita Durangon! (BEZa barne eta sukalde jantzia). Zuzenean, zozketarik gabe. Entrega-epea abendurako dago aurreikusita.

Gure etxebizitza pilotua bisita ezazu! 12tik 14ra eta 19tik 21era.

Ostiralean 16:00etatik 20:00etara.
Larunbatetan eta igandeetan 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

2 eta 3 logelako BOEak ditugu, garaje eta trasteleku elkartuekin. Etxebizitza hauek 64,55 m2 eta 72 m2 arteko azalera dute. Entrega-epea abendurako dago aurreikusita.

Visesa eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pertsonekin konpromisoa

ALERDIA DULKARRETTA GAZTEENTZAKO PERTSONA HELBURI COMPROMISO CON LAS PERSONAS

Jaialdi solidarioa antolatu dute Luis Urrengoetxeako tabernariak

Luis Urrengoetxea kaleko tabernariak domekarako antolatutako jaialdian batutako dirua La Otra Mirada eta AIDAE elkarteei laguntzeko izango da



Luis Urrengoetxea kaleko tabernen inguruan izango dira ekitaldietako asko.

ZORNOTZA Joseba Derteano Luis Urrengoetxea kaleko tabernariak jaialdi solidarioa antolatu dute domeka honetarako. Motorren topaketa, erakusketak eta umeentzako jolasak egongo dira, bestek beste. Ekinenean batutako dirua La Otra Mirada eta AIDAE elkarteei laguntzeko erabiliko dute. Aurten bigarren aldia egingo du jaiak.

Goizetik eguerdira tabernariak edariak eta pintxoak sal-

duko dituzte Luis Urrengoetxea kaleko plazan atonduko duten txosnan. Horren inguruan hainbat ekitaldi prestatu dituzte. 11:00etan motorren topaketa bat egongo da; bonsai erakusketa bat eta borroka arteen erakustaldiak ere egongo dira.

Euskal Herria enparantzan ere ekitaldi bi izango dira. Lehenengo, 12:00etan, umeentzako jolasak prestatuko dituzte; ondoren, 14:30ean, paella erraldoi

bat prestatuko eta hiru euroan salduko dute.

Batutako dirua elkarte bien artean banatuko dute. La Otra Mirada beharrean daudenei laguntzen dien elkarteak da, eta hainbat proiektu ditu Euskal Herrian zein atzerrian. Eta AIDAEk urritasunen bat duten zornotzarren integrazioan lan egiten du. Batez ere aisialdiari lotutako ekintzak prestatzen dituzte urte osoan zehar.

Kirol jardueretan izena emateko aukera dago

MAÑARIA Markel Onaindia Mañariko Udalak prestatu du aurtengo kirol eskaintza. Ikastaro bi izango dira: gimnasia eta aktibitate aerobikoa. Urrian ipiniko dituzte martxan, eta irailaren 19ra arte eskaini dute aukera izena emateko.

Osasuna mantentzeko gimnasia landuko den ikastaroa urriaren 7an hasiko da, eta ekainera arte 62 saio egingo dituzte. Martitzen eta egue-netan batuko dira, 19:00etatik 20:00etara, eta hileko kuota 11,66 eurokoa izango da.

Jarduera aerobikoak lantzeko ikastaroa urriaren 6an hasiko da, eta maiatzerraino iraungo duela azaldu dute. As-teheneetan eta eguaztenetan praktikatu dute, 19:00etatik 20:00etara, eta hileko kuota 20,25 eurokoa da. Ikastaro bietarako, %20ko deskontua edukiko dute ikasle, langabetu eta jubilatuak.

Domekan, Aitte Kurutzeko Domekan Aitte Kurutzeko jaia ospatuko dute ermitan bertan. 11:00etan, mezaren ostean, dantzarien saioa etorriko da.

SEI HANKAKO MAHAIA

EIDER URIBE

Bildu



Bikaintasun kudeaketa - PNV style

Maiatzean udal eta foru hauteskundeak izango ditugula badakigu bai, eta EAJ horretan buru-belarri dabilela ere argi daukagu, azken aldia pairatzen ari garen bonbardaketa informatiboa nabaria delako. Urtetan egin ez duten lana hilabete gutxi batzuetan egin nahi dute. Gauzatu gabeko proiektuak, obrak nonahi, eta beteko ez dituzten promesak izango ditugu ondorengo hila-beteetan. Trenbidearen lurperatzearen ondorioz, libre geratuko diren lurretan proiektu goloso bat salduko diguten susmoa ere badaukagu... Berriz ere, bulegoetan erabakitako proiektuak, herritarren parte-hartzerik gabe.

Buelta gaitezen eguneko jardunera: udalak 7.939.000 euroko zorra zuen 2013. urte bukaeran. Bitartean, gobernu taldea bere kudeaketa eredua, zorpetu gaituen eredua, goraipatzen. Urtetan gobernatzen izan ditugunek egin dituzten obra erraldoiek (eta zentzugabeak asko) ito egin gaituzte. Egoera hau ez dator zerutik, norena da erantzukizuna? EAJk auto-kritika egiteko eta errealtatea makillatzeko duen gaitasuna alboratzeko garaia da. Datorrenak herentzia polita izango du...

Zenbatetan eskatu dugu azterketa soziodemografiko bat egiteko, errealtatea aztertu eta, herritarren beharrak ezagutz, proiektuak finkatzeko? EH Bilduk legengintzaldia amaitu arte gelditzen den denbora herritarrekin lan egiteko erabiliko du, azterketa sakon bat eginez. Udaleko informazio guztia herritarren esku jarri behar dugula sinesten dugu; gure ildo nagusienetako bat gardentasuna da, eta etorkizunean ere horrela izango da.

Izurtzarrek agur sentitua eman diote Juan Luis Azkarragari

Domekan hil zen Azkarraga, Mendigain dantza taldeko sortzaileetako bat



Azkarraga (goian, ezkerrean) Mendigain dantza taldeagaz.

IZURTZA Joseba Derteano Joan zen domekan hil zen Juan Luis Azkarraga izurtzarra, 68 urte zituela. Mendigain dantza taldearen sortzaileetako bat izan zen, eta baita udaleko zinegotzi ere hainbat urtean. Jende asko batu zen asteleheneko hileta elizkizunera. Luis Ballarin alkatearen esanetan, "pertsona zintzoa zen, herrian maitatua, eta beti edozertan laguntzeko prest zegoena". Ez ziren falta izan sasoi bateko herriko alka-

teak ere, Karmelo Irastorza eta Juan Mari Alberdi, esaterako.

1967an Mendigain dantza taldearen sortzaileetako bat izan zen, eta, gero, presidente izan zen urte askoan. Etor Gorroño dantza taldeko kideak adierazi zuen "dantzarien belaunaldi askorentzako erreferente" izan dela. Izurtzako Udalean zinegotzi ere jardun zuen hiru legegintzalditan. Gaur egun Izurtzako Udalak duen bandera ere bere lanaren ondorio da hein batean. Izurtzak ez zuen udal bandera ofizialik, eta 1994an dantza taldeko bandera Izurtzako Udaleko bandera ofizial bihurtu zedin lan handia egin zuen. Udalbatzarra onartu egin zuen, eta dantzarien bandera udalarena eta herri osoarena bihurtu zen.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

Udalatxeko AHTaren tunelean ez dago larrialdi irteerarik

Europako Batzordeak gaia aztertuko duela azaldu du, EH Bilduri erantzunez



Udalatxeko tunela, atzo ateratako argazkian. Jabi Ugalde.

ELORRIO Markel Onaindia Udalatxeko (Elorrio) eta Induspeko (Aramaio) AHTaren tunelak larrialdi irteerarik barik eraiki ditu Adifek, Espainiako Gobernuaren menpeko garraio erakundeak. Egungo legediaren kontra doa hori, baina obra lege berriaren aurretik onartu izanak eztabaida zabaldu du. EH Bilduren galdera bati erantzunez, Europako Batzordeak gaia aztertuko duela azaldu du.

2006an onartu zen Udalatxeko tunela barneratzen duen obra zatia. Horren ostean, 2008an etorri zen Europako arau berria: 1.000 metro baino gehiagoko tuneletan larrialdi irteerak eraiki behar dira, kilometro bakoitzeko tunel bat, hain zuzen. Udalatxeko tunelak

3.191 metroko luzera dauka, eta, horregatik, hiru irteera egon beharko lirateke bertan. Adifek bere jarrera argudiatzeko esan du legearen aurretik zegoela

Tunelak 3.191 metroko luzera dauka, eta, horregatik, hiru irteera egon beharko lirateke

diseinatuta obra. EH Bilduren iritziz, oster, Adifek bazeukan proiektua aldatzeko denbora, obra 2009an ipini zelako martxan. Koalizioko Iosu Juaristik Europako Batzordeari galdetu dio ea gaiak jakitun den, eta Batzordeak erantzun du gaia az-

tertuko duela. Europak erantzunean aipatu duenez, gobernuek salbuespenak eskatzeko aukera daukate horrelako kasuetan, baina egoera hori eman den egiaztatuko du.

EH Bilduko Dani Maezturen ustez, segurtasunaren eta eragin ekologikoen zein sozialen gainetik bultzatu dute obra: “AHTa bai ala bai egin behar dute. Ikusten gabiltza Zumarragan tunel bat behera jausi dela, segurtasun neurriak ez direla betetzen, zazpi behargin hil direla obretan...”. Murrizketa sasoiari, dirua AHTaren lanetan inbertitzea kritikatu du: “Jaur-laritzak urtero 360 milioi euro bideratzen ditu, eta Espainiak ordaintzen duela esan arren, ikusi da ez dela egia”.

Santa Katalinako jaia ospatuko dute domeka honetan

GARAI M.O.

Domekan ospatuko dute Santa Katalina ermitako jaia. Goizeko 10:30ean meza edukiko dute, eta, gainera, Garaiko meza nagusia izango da hori, herri-gunetik ermitara lekualdatuko dutelako elizkizun nagusia. Dantzarien saioa etorriko da gero, eta, amaitzeko, luntxa egongo da bertaratzen diren guztientzat.

Tradiziozko jaia da, baina hainbat urteko hutsunearen ostean, duela hamabost bat urte berreskuratu zuten ohitura.

Umeentzako dantza saioak irailaren 19tik aurrera

ATXONDO Joseba Derteano

Umetxoaren artean dantzarako zaletasuna sustatzeko 2-3 urtetik gorakoei zuzendutako dantza saioak antolatuko ditu Andastok. Irailaren 19an, bari-kuan, 19:30ean izango da lehen saioa, eta ordutik aurrera bari-kuro elkartuko dira frontoian.

Aurreko urteetako aldiek harrera ona izan dutela diote dantza taldeko kideek. Euskal dantzak irakatsiko dituzte. Neskek arku dantza eta zinta dantza ikasi ahalko dituzte, esaterako, eta mutilek banango, binango eta txotxongilo dantzak.

> DURANGALDEA ASTEON

Errepublikako eskolen argazkiak

ERAKUSKETA Urtero legez, 36ko gerran hildako berriz-tarrak gogoratzeko ekitaldia egin zuten atzo, irailak 11. Horren harira, Berriz 1936 gogoratzen elkarrekin Espainiako Bigarren Errepublikan Berri-zen sortu ziren eskolei ateratako argazkiak batu ditu, eta erakusketa antolatu du datozen bi asteetarako, Kultur Etxean.

Zornotzan, bisita gidatuak irailean

ONDAREA Ametx erakundeak Zornotzako ondarea ezagutarazteko bisita gidatuak antolatu ditu irailaren 13rako (Montorrako San Lorentzo, Dudaeko San Miguel...), 20rako (San Bartolome, Boroako San Pedro...) eta 27rako (San Martin...). Zelaieta zentroan eman daiteke izena bisita horietan parte hartzeko.

Bertsoak eta antzerkia Izurtzan

JAIK Jai egitarauaren barruan, gaur, antzerki saioa egongo da Izurtzan. Karrikan-toi taldeak *Ilunpean* lana eskainiko du. Ekintza horrek ordu aldaketa izan du, eta, gaur, 22:00etan izango da. Domeka eguerdian, Santo Tomas ermita inguruan dantzariak, eta Miren Amuriza eta Gorka Lazkano bertsolariak ariko dira.

Iritzia



Oportxikiak 2

Udako beste aukera bat Iurretako San Mames ermitan, abuztuaren 17an, egingen den jaia da. Eguerdiko meza San Mamesi eskainitako esaera zaharren errezeptaldiagaz amaitu eban sakristauak. Garaizarko etxandereak eskainitako txorizo, gaztai, gailera eta edari ugari egon zan bertaratutakoentzat. Ordua ere egokia horretarako, eta danok

ekin geuntsan gustura. Txistularirik ez zanez etorri, Mikelek eta Anttonmarik kantatuta, entsegua lez, Garaiko eta Iurretako dantzariak jantzan ederto egin eben. Bola-jokoan ere luzaroan ibili ziren zahar zein gazte, neska eta mutil. Eguraldi ona eta harizpeko gerizpean bazkaritara bat baino gehiago geratu zan. Hau guztia herritik urten barik.

Kristina Mardaras (Iurreta)

Berrizko alkateak ez ditu epaiak betetzen

Duela hamabost urte, Durango-Ondarroa saihesbidearen bigarren zatia (Ormaiztegi-Sallobente) egin zenean, Arratu parean eraiki zuten zubia, eta bidea egin gabe gelditu zen. Ondorioz, Abaituiturriondo eta Arkotxa bitarteko etxeen lursailak eta Torosto mendiaren sarrera banatuta gelditu ziren.

2009an (hamar urte beranduago), Bizkaiko Foru Aldundiak bidea eraiki zuen. Guztiz bukatu gabe zegoela, orde, auzokide batek, inolako baimenik gabe, BI-633 errepidean legez kanpoko horma bat altxatu zuen, zordonbidea errespetatu gabe. Udalak isuna jarri zion.

2011n, gure harriidurarako, horma legezkotik jo zuten erakundeek. Erabaki horren aurrean, auzokideok epaitegie-

tara jo eta udalaren eta Aldundiaren kontrako salaketa jarri genuen. 2012ko ekainean kaleratutako 173/2012 epaiak argi uzten du horma 5,8 metro atzeratu beharra dagoela.

Orland Isoird alkateak ez du oraindik epaia bete, nahiz eta horretarako borondatezko epea bukatuta egon. Irailaren 2an 50 euroko kostak ordaintzera behartu du epaileak udala. Epaiak epaiak epai eta isunak isun, alkateak ez du jarrera aldatu. Auzokideen arazoak konpondu beharrean auzokideak elkarren kontra jartzen ari da.

Jarrera aldatzen ez badu, berriz ere epaitegietara joko dugu. Legea betetzeko dago.

Matias Oregi (Berriz)



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz**Angel Basabe** | lurretako udal arkitektoa | lurreta, 1965

“Hilerri baten proiektua egitean alde emozionalak pisu handia du”

2008an inauguratu zuten hilerriaren proiektuak Antonio Machadoren poesia bat du oinarri

> BERBAZ Jone Guenetxea

Heriotzari buruzko gaietan espezializatutako ‘Adiós’ aldizkariak Espainia mailako hilerrien arteko lehiaketa antolatu du, eta kanposantu onenaren kategorian lehiatzen dabil lurretakoa. Irailaren amaierara arte dago hilerri bati edo beste bati botoa emateko aukera, ‘www.revistaadios.es’ webgunean. Angel Basabe lurretako udal arkitektoa da proiektuaren sortzailea. Komunikabideetan irakurri zuen lurretako kanposantua lehiaketarako sailkatu zela. Pozik azaldu digu proiektua zertan datzan.

2008an hilerriaren obra mar-txan jarri baino lehen, zein zen lurretako kanposantuen egoera?

Lurretako desanexioagaz hasi zen dena. Lurretak hilerriko ekipamendu falta detektatu zuen, eta ondoko lursaila erosi zuen. Hilerria zabaldu beharra zegoen, geneukan espazioa optimizatuta. Aparkalekua ere beharrezkoa zen, eta nitxo ilara bat ere bai. Berdegune bat utzi zen bertan. Hasieran pasealeku bat egitea pentsatu zuen udalak, hilerri

erromantikoak gogoratuz. Aurrekontu arazoak zirela-eta, berdegunearena bertan behera gelditu zen.

2008an egin zenuten hurrengo zabalkundea.

Hilerria beteta zegoela ikusi genuen, eta [Jose Luis Rodríguez] Zapateroren gobernuak obrak egitera bideratutako diru-laguntzagaz proiektu hau egiteko aukera izan genezakeela ikusi genuen.

Zein da egitasmo honen ideia nagusia?

Hilerri bat eraikitzeke proiektua ez da ohiko proiektua. Alde emozionalak pisu handia du, eta bereziki sentsibilizatuta zaude. Hasieratik Antonio Machadoren *A un olmo seco* poema etorri

“

Hasieratik, Antonio Machadoren ‘A un olmo seco’ poema etorri zitzaidan burura

zitzaidan burura. Pertsona bat hiltzen denean hutsune bat uzten dizu, zauri bat, eta hortik abiatuta garatu nuen proiektua. Proiektu horrek lurperatze tradizionalagaz ere bat egin zuen. Lehenengo zabalkundea egin genuenean, jendeak esaten zuen aurretik hildakoak lurrazpian uzten zirela. Konturatzen bazara, ez dira nitxo ilara ordenatuak. Familia txikiak sortzen dira modu oso organiko eta aleatorioan. Zauri bat islatzen du.

Proiektua zertan datza?

Sarrera nagusitik sartzen bazara, hormak inklinatuta daude, eta zauri horretara eramaten zaitu, bi espazio horietara.

Sinbologia handiko gunea sortu zenuen.

Zauria islatzeaz gainera, kanpoaldeko kolore berdeak esperantza irudikatzen du, eta zuriak, berriz, lasaitasuna, bertara joateko momentu ilun horien artean. Lurreko argiek elizetan pizten diren kandelak irudikatzen dituzte. Bere momentuan bizia izan zuten zumar enborrak hilda eta okertuta agertzen dira. Hilda, baina presente.

Zer-nolako obra izan zen?

Obra konplexua izan zen. Hormigoi zuriagaz lan egitea ez zen erraza izan, genuen aurrekontua aintzat hartuta. Material horregaz horma makurrak egitea ez zen erraza izan. Eraikitakoa lurrean mimetizatzen da, eta atzeko mendien profilen antza hartzen du. Nitxoek mendixkak dituzte gainea.

Etorkizuneko zabalkundeak aurreikusi dituzue?

Paseo zentrolean hezurtegiak eraikitzeke aukera aurreikusi

nuen. Nitxoetatik gorpuak ateratzerakoan hezurtegieta sar-tzen dira.

Zelan jaso duzue lehiaketari buruzko albistea?

Albistea egunkarian irakurtzerakoan ezagutu nuen, abuztuaren 10ean, eta 11n lanera etorri nintzen. Ekainaren 16an ebakuntza bat egin zidaten, eta hila-bete eta erdian ez dut posta elektronikorik jaso. Bertan zegoen lehiaketaren jakinarazpena. Orduan hasi nintzen jendeari esaten bozkatu egin behar dela!

Lehiaketa irabaztea garrantzitsua izango da, baina jasotako esker ona ere bai.

Obra bat aintzatestea da. Gainera, gida batean agertuko denez, baten bat hilerria ikustera badator, Goiurira joan daiteke, bertako ikuspegia ikustera, eta herrian zehar ibili daiteke. Dena dela, esan nahi nuke obra guztietan hiru zutabe garrantzitsu daudela. Arkitektoa bere proiektuagaz, sustatzailea eta eraikitzailea. Elkar ulertzen ez dutenean proiektuak kolokan egoten dira. Kasu honetan, udalak bere konfiantza guztia eman zidan. Ideia asko gustatu zitzairen, eta eraikitzaileak ere gauzak ondo egin zituen.

Lehiaketa honek oihartzun handia izan du hedabideetan.

Harrituta nago komunikabideek adierazi duten interesarengatik. Izan ere, informazio asko kaleratu dute.

Proiektuagaz gustura gelditu zinen?

Bere momentuan oso pozik gelditu nintzen. Planoak maitasun berezi batez egin nituen. Le-ku honetara badakizu tristuraz heltzen zarela, eta, beharbada, inguruak lagundu egin zaitzake-la pentsatu nuen. Ez zait hilerri hotz bat iruditzen.



lurretako hilerria.

➤ **EGITARAUA** Jone Guenetxea Iurretako Herri Bibliotekak eta kultur etxeak 2014-2015 ikasturtera begirako egitarau zabala aurkeztu dute prentsaurrekoan. “Herri txikia izateak ez du kentzen kalitatezko zerbitzu publikoa eskaini behar ez diegunik gure herritarrei”, azaldu du egitarauaren inguruan Iñaki Totorikaguena alkatea.

Herri Bibliotekari dagokionez, irakurzaletasuna “modu integralean lantzeko” adin tarte guztiei eta doan zuzendutako ekintzak antolatu dituzte. Nobedadeen artean, Galtzagorri ekarteagaz antolatzen duten *Bularretik mintzora* kanpaina osasun zentroko pediatria kontsultategian eskainiko dute 2015ean. Ziortza Onaindia arduradunak azaldu duenez, ekimenaren helburua da haurra amaren sabelean dagoenetik 7 urte izan arte irakurketa umearen inguruko giroan era natural batean txertatzea. Gainera, 0-3 urte arteko umeei zuzenduta, *Azalerako ipuinak* egitasmoa zuzenduko du Saroa Bikandik hirugarren urtez. Tailer horretan, literaturaren mundura abesti, ipuin, jolas, poema eta masajeen bidez hurbiltzeko baliabideak eskaintzen dituzte.

Irakurketa kluba

Isa Castillock dinamizatzen duen irakurketa klubak talde bi izango ditu, iaz bezala: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Aurten, esate baterako, erdarazko taldeak

Ikasturte berria abiatu dute Iurretako Herri Bibliotekak eta kultur etxeak

Herriko hainbat elkarte hartzen dute parte egitaraua osatzen duten ekintzak antolatzen



Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea, Ziortza Onaindia Herri Bibliotekako arduraduna, eta Pili Jimenez kultur etxeko arduraduna.

Miren Agur Meabe idazlea lekeitiarraren bisita jasoko du abenduan, eta euskarazkoak Danele Sarriugarte elgoibartarrarena. Emakumeen literatur tailerrak, berriz, XIX. mendeko emakume idazle ingelesez lanak landuko ditu.

Egitaraua osatzeko, *Munduko paisaiak* programaren barruan, Sahararen inguruko

ekintzak antolatuko dituzte.

Bestetik, atzerriko hizkuntzak mintzapraktika bidez lantzeko aukera eskaintzen du Herri Bibliotekak. Alemana, ingelesa eta frantsesa praktikatzeko tailerrak eskainiko dituzte talde mailakatuetan. EHUKo ikasleek gidatuko dituzte praktikak.

Urriaren 24rako, Liburutegien Nazioarteko Egunerako,

berriz, beste hainbat ekintzen artean, bizikleta gainean egingandako ipuin kontakizuna aurreikusitako Iurretako txirrindulari elkarteagaz elkarlanean.

Bestalde, irakurtzeko zailtasunak dituztenen artean irakurketa errazak bultzatzeko, kolektibo horiekin diharduten profesionalei zuzendutako jardunaldiak eskainiko dituzte.

Kultur etxeari dagokionez, aurten hamahiru tailer eskainiko dituzte bertan. Yoga, eskulanak, sukaldaritza, taichi eta beste hainbat arlo lantzeko ize-na emateko epea irailaren 16tik 19ra izango da iurretarrantzat, eta 21etik 15era kanpokoentzat. Pili Jimenez teknikariak azaldu duenez, urtero betetzen dira tailerretako 300 plazak.

Txikitatik, irakurtzea ikasketekin barik plazerragaz lotu dezaten

Adin guztietara egokituta, guztientzako eskaintza Iurretako Bibliotekan



7 urte bete arte gurasoek lagunduta parte hartzen dute umeei.

Bizitzako une bakoitzari egokituta, adin guztietarako irakurketa klubak eskaintzen dituzte Iurretako Herri Bibliotekan: jaioberriengandik hasita –es-

kaintza berezitua dute–, adin tarte bakoitzari ondoen egokitzen zaion formatuan. Liburutegira hurreratu daitezela lortzea zailen den adin tarteko

iurretarrak, gazteak, ere erakartzea lortu dute azken urteotan. “Helduekin hasi ginen lehenengo”, gogoratu du Ziortza Onaindia Herri Biblioteka-

ko arduradunak, “eta, orain, irakurle klubak eskaintzen ditugu 0 urtetik aurrera ere”.

“Irakurzaletasuna bultzatzea prozesu bat da”, azaldu du Onaindiak: 8 urtetik 14 urtera artekoek, esaterako, aurretik umeentzako programetan landutakoa oinarri hartuta dihardute Iurretako irakurketa klubetan: “Letrak identifikatzen hasten dira adin horregaz, eta argi dago txikitatik beste programen bitartez eragina jaso dutela: istorioak entzuten eta sortzen ohituta daude, eta modu autonomoan hasten dira irakurtzen”.

Txikiagoak direnean, 8 urte bete arte, gurasoek lagunduta egoten dira haurrak Iurretako liburutegian, eta 8 urteagaz hasten dira autonomia hori lantzen. Onaindiaren berbetan, irakurgaia lantzeko konpromisoa hartzen dute umeei, eta ekarpen oso interesgarriak

egiten dituzte: “Beti daude prest prozesua aberasteko”.


Txomin eta Peru Magdalena anaiek dinamizatutako dituzte aurtengo gazteen irakurketa klubak. Iaz, esaterako, berrehundik gora iurretarrekin parte hartu zuten 8-14 urtekoek zuzenduriko ekimenetan.

Ikastetxeekin batera

Herriko ikastetxeekin elkarlanean antolatzen ditu Herri Bibliotekak gazteentzako irakurketa klubak. Maiztegi eta Orobiogoitia ikastetxeetan, as-tean behin, tertulia literarioak egiten dituzte eskola orduetan bosgarren eta seigarren mailetako, eta DBHko lehenengo eta bigarren mailetako ikasleek. Liburutegian egiten dute hileko azken saioa. Ikasleek irakurtzea, ikasketekin eta derri-gortasunagaz barik, plazerragaz lotu dezatela dute helburu eskolan zein liburutegian.

Joxan Izaren ‘Bildumak & amaitu gabeak’ obra ikusgai, Durangon

Irailaren 28ra arte ikusi ahalko da lana Durangoko Arte eta Historia Museoan



Joxan Izaren lan pikturikoaren zein eskultorikoaren erakusle da bilduma.

> ARTEA Itsaso Esteban
Irailaren 6an inauguratu zuten, Durangoko Arte eta Historia Museoan, Joxan Iza (Bergara, 1961) artistaren erakusketa, eta

irailaren 28ra arte ikusi ahalko dute gerturatzen direnek. *Bildumak & amaitu gabeak* izenburua du Izak Durangora ekarri duen erakusketak, eta bere mar-

golanak zein eskultura lanak batu ditu bertan.

Margogintzako hainbat teknika uztartuta egindako koadroak dira Durangoko Arte

eta Historia Museoan ikus daitezkeen arteak asko: margoa, collagea eta argazkiak artelan berean nahastuta egindakoak. Dibon euskarrian egindakoak dira koadro horiek.

Bestalde, paper gainean, akuarelagaz egindakoak dira erakusketako beste obra batzuk; *Happy pills; contra los domingos sin futbol* izenburu bereziko artelana, esate baterako.

Hainbat teknika nahastuta egindakoak dira Izaren lanetariko asko: margoa, collagea, argazkiak...

Joxan Izaren azkenaldiko jardunaren erakusle da erakusketa; 2014. urteko data dute erakusketako artelan gehienek.

Parisen ikasitakoak da Iza: Arte Ederretako Goi Mailako Eskolan egin zituen ikasketak, eta Claude Augerearen tailerrean ere aritu zen. Euskal Herrian zein Frantzian egin izan ditu azken urteotan erakusketak.

GEURE DURANGALDEA

Josune Aranguren

Kultur teknikaria



Kulturaren kiroltzea

“Lesionatu egin naiz”. Gertuko ume bati hori entzundakoan, burua bueltaka hasi zitzaidan. “Min hartu dut” esango genuke horren ordez, ezta? Globalizatze prozesuaren beste ondorio bat honako hau da: kirolak, egun, bizimodua, kultura eta ingurunea baldintzatzen ditu. Jolasetan gorputza mirestearen inguruko kultura txertatu da, eskola kirolean lehiakortasuna, janzkeran marken kirola eta osasunean, berriz, teknifikazio handia. Eta guztietan hizkera berezi bat eta sexismoa.

Berdintze prozesu honek heterogeneotasunari ez dio lekurik uzten. Hezitzaile fisiko eta gizarte analistek azter dezaten zenbat lagundu dion marken kirolak boterearen inposaketari. Coubertin Olinpiar Joko modernoan aitzatzen dugun baroi jaunak berak espirituaren kulturizazioa kirolaren eta higienaren eskutik zetozela esaten zuen, eta gainontzeko herrialdeen konkistarako biderik onena kirolariak beste herrialde batzuetan miretsiak izatea zela.

XX. mendearen hasieran hasi zen kirola modan jartzeko: jendarteratu egin zen, eta grinak pizteari ekin zion. Osteko bidearen ondorioz, lekuan lekuko praktiketarako lekurik ez dago, formak gizonezkoek ezarriak dira, eta arropa jakin batzuk ibili behar ditugu, zapatila mota asko eduki; atleta izan nahi dugu eta gorputza landu, eta aisialdiko praktika ludikoa izan behar zuena medikuen eta zientzialarien esanen arabera eta telebistan ikusten dugunaren arabera egiten dugu.

> PROGRAMAZIOA

7 urtera arteko umeen literaturarekiko interesa pizteko helburuagaz, adin tarte horretakoei zuzenduriko hiru programa ipiniko dituzte martxan ikasturte honetan, Zornotzako liburutegian; 0 eta 3 urtekoentzako *Azalerako ipuinak*, 3 eta 4 urtekoentzako irakurketa kluba, eta 5 eta 7 urte artekoentzako *Kontuleku* izeneko programa. Irailaren 15etik 19ra arteko epea eman dute antolatzaileek izena emateko, eta, aurreratu dutenez, gehienez ere hamar ume taldeak osatuko dituzte.

7 urtera arteko umeengan irakurtzeko gogoia pizteko asmoz ipini dituzte programak martxan

Arduradunek azpimarratu dutenez, guraso batek lagunduta joan beharko dute haurrek saio horietara. Izan ere, gura-

Umeentzako hiru programa eta mintzapraktika, aukeran, Zornotzan

Dagoeneko eman daiteke izena Zornotzako liburutegiko ekimenetan

soen eta seme-alaben arteko komunikazioa indartzea ere bada Zornotzako liburutegiko programa hauen helburu. Ho-

rrela, “partaideen joerak eta adinak aintzat hartuta, estrategia egokiak hautatuko ditugu, umeengan irakurtzeko eta libu-

ruak ezagutzeko gogoia pizteko”, adierazi dute antolatzaileek.

Mintzapraktikarako

Doako programa ipini du Zornotzako liburutegiak abian, ingelesez, frantsesez edo gaztelaniaz mintzapraktika egin gura dutenentzat.

Aditu batek dinamizatuko du talde bakoitza, eta interesatuak bere ordutegiari hoberen datorkion asteko eguna aukeratu ahalko du. Ordubeteko iraupena izango dute saioek, eta irailaren 16ra arte eman ahalko da izena.

Gaztelaniaren kasuan, oinarritzko maila bakarrik eskainiko dute. Ingelesarenean, aldiz, bi maila eskainiko dituzte: baxu-ertaina eta ertain-altua.



7 urte artekoentzako saioak eskainiko dituzte.

Paco Obregón
Adiós, Chécov
Urriaren 3an - 20:00etan
Urriaren 4an - 20:00etan
San Agustín KULTUR GUINEA
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

IRAILAK 18 - 19:00etan DOAN KANTULAGUNE!... LEHEN KANTU BAT
Ikasturte hasierako zita
AURKEZPENA

IRAILAK 26 - 22:30ean 6 / 7 euro
MOBY DICK eta LOU TOPET
MUSIKA KONTZERTUA

IRAILAK 27 - 13:00etan Santa Anako elizpetik KANTULAGUN KALEZ-KALE
Kantu-poteoa Alde Zaharretik zehar
KANTUZALEEN TXOKOA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4A 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu deitu!

946 217 902



ESKOLARA BUELTA

GEHIGARRIA

eskolara buelta

Heldu da eskolara itzultzeko eguna. Sasoi honetan eskola materiala prestatzeaz gainera, umeen eta gazteen arropak eta oinetakoak aukeratzeko momentua izaten da. Helburua erosotasuna lortzeak izan behar du.



Neguan
euritik
babesteko
oinetakoak
aukeratu



PINKII



PINKII



PINKII



PINKII



PINKII

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017



Pinkii
Ibaizabal, 6 C - Durango · Tel.: 946 032 329 · calzadospinkii@hotmail.es



Udako egunak atzean uzten ari gara, eta apurka-apurka neguko arrokekin beteko dugu armairua. Baina nork esan du jantzi ilunak eta

aspergarriak izan behar dutela? Kolorez betetako leggin eta prakek bizitasuna emango diote umeen eta gazteen arropari.

jantziak



**Arropa
koloretsuekin
eman
iezaiozu
ongietorria
neguari**



aek

euskara praktikoa



30 urtean
50.000 lagunek
ikasi dute
jadanik
euskara
gure 100
euskaltegietan



- Euskalduntze maila guztiak (A1, A2, B1, B2, C1)
- 4. maila (C2)
- on line ikastaroak
- Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)



Eskolak



Mintza
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio
planak



Titulu
homologatuak

aek

Gorena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

eman izena

www.aek.eus

673 200 100 - 946 464 000



DURANGO / IURRETA / IZURTZA / MAÑARIA

94 681 73 49/ 607 159 205
abarrak@aek.org

ELORRIO / ATXONDO

607 600 901
abizari@aek.org

ZORNOTZA

607 151 917
zornotza@aek.org

BERRIZ

662966827
berriz@aek.org

ZALDIBAR

662966827
zaldibar@aek.org

ABADIÑO

662966827
abadino@aek.org

“Gurasoek barneratu behar dute ume guztiak desberdinak direla”

Eileike zentroko arduradunak dira Maite Aldekoa eta Ana Jimenez



Maite Aldekoa eta Ana Jimenez Eileikeko kideak; Durangon, Askatasun Etorbidea, 4an dute zentroa.

> Joseba Derteano

Haurrek eta nerabeek garapen osoan zehar izan ditzaketen beharri zentzuzkoak. Gaztetxoaren artean batez ere irakurketan eta idazketan ematen omen dira arazorik handienak, eta baita portaeran ere.

Egun, bada arazoren bat beste gainetik nabarmentzen dena?

Maite Aldekoa: Gazteen alderdi akademikoagaz lotuta, batez ere bi nabarmentzen dira: arretoa goiztiarra (0-6 urte artean) eta laguntza psiko-hezigarria (6 urtetik aurrera). Gure tratamenduak globalak izaten dira beti. Gazte horren garapena onena izan dadin, eta prebentzio moduan, ahalik esparru zabalena kontuan hartzea gustatzen zaigu: arlo kognitiboa, emozionala, motrizitatea, hizkuntza eta komunikazioa, esaterako,

Gurasoek ulertzen dute tratamendu horren garrantzia?

M.A.: Gaur egun medikuen ikuspegia oso orokortuta dago, eta gurasoek uste izaten dute arazo batek arrazoi bakarra duela. Guk uste dugu aldagai asko egoten direla jokoan, eta ezinbestekoa da azalpen hori gurasoei ere jakinaraztea. Kontuan hartu behar da, gainera, gazteak gaur daukan zailtasuna hilabete bi barru aldatu egin daitekeela, bai arloz eta bai intentsitatez.

Zer adin tarteko gazteak etortzen zaizkizue batez ere?

Ana Jimenez: Bi tarte daude

batez ere. Batetik, 5 eta 7 urte artekoak, Lehen Hezkuntzan hasien diren sasoi horretan. Bestetik, azken aldian nerabeen kasuek ere gora egin dutela ikusi dugu; autoestimua falta, segurtasun eza, lagunekin onak ez diren hartu-emanak...

Nerabeen artean emandako igoera zergatik izan daiteke?

A.J.: Nik uste beti gertatu dela, baina orain garrantzi handiagoa ematen diogula. Sasoi batean nerabeek parkean jolasten zuten, baina orain, sare sozialak direla edo WhatsAppa dela, direna baino helduago izan gura dute, baina denek ez dute egoera horiei aurre egiteko gaitasun bera, eta hor sortzen dira arazoak.

Eta 5-7 urtekoen artean zeintzuk izaten dira arazo nagusiak?

M.A.: Batik bat irakurketan eta idazketan agertzen dira arazorik gehienak. Dislexia sarritan ematen den kasua da, esaterako. Baina horietatik abiatuta, gero beste zailtasun batzuk agertzen dira normalean. Horretaz gainera, gizartearen eman diren aldaketak eraginda, portaera arazoak ere ikusten ditugu; ikastetxeetan irakasleek diote kosta egiten zaiela gaztetxoek eurei kasu egitea; sasoi bateko autoritatea galdu dute, eta gurasoei ere antzeko zerbait

gertatzen da. Gaztetxoaren artean normalak dira haserrealdiak, baina, horiei mugak jartzen joan ezik, egoera okerrera joan daiteke.

A.J.: Telebistako *Hermano mayor* programak ere eragin handia du. Esaterako, gaztetxoek gurasoek pentsatzen dute: “Nire seme-alaba telebistako gazte eredu horretarantz ote doa?”.

Gurasoei zer aholku emango zeniekete?

Gurasoek barneratu behar dute ume guztiak desberdinak direla. Askotan konparaketak egiten dira, adibidez, parkean, eskolan zein neba-arreben artean, baina indibidualtasun hori errespetatzen ikasi behar dugu, eta baita konparaketa horietatik irtendako ondorioak erlatibizatzen ere.

“Irakurketan eta idazketan agertzen dira arazorik gehienak”

Kalebarria, z/g
48200 Durango
Tel.: 946 201 893
Fax: 946 816 403

Testuliburuak
Hizkuntza Eskolarako liburuak

**behar duzun
eskola materiala!**

BVRNS ACADEMY

Kalebarria, 44-46 behea
48200 DURANGO
Tel.: 946 203 668
info@bvrnsacademy.com
www.bvrnsacademy.com

- Ingelesa - Frantsesa.
- Jatorrizko irakasle tituludunak.
- Maila guztiak.
- 3 urtetik aurrera.
- Ingeles ikastaroak atzerrian.

Kurutzia Akademia

Artegrafia • Bitxigintza • Marrazkigintza eta pintura • Matrikula eta modelismoa

ARTE EDERRAK

Ume eta nagusientzako pintura eta marrazkigintza kurtsoak

MATRIKULA ZABALIK

- Astelehenetik ostiralera
- Goiz eta arratsaldeko ordutegia

Tel.: 94 603 05 27 Informa zaitzue konpromiso gabe

info@academiakurutzia.com • www.academiakurutzia.com

Euskaraz blai

UDAL EUSKALTEGIAK
14-15

ESKaintza Presentziala

4 egun astean (10 ordu) • 2 egun astean (6 ordu)

Guraso taldeak • Batxilergoko ikasleak

Hizkuntza eskakizunak prestatzeko ikastaroak

ONLINE

Autoikasketa zerbitzua (Moodle).

www.durangoeuskaltegia.net

Saibi kalea, 10 - 3.a • 48200 Durango • 946 030 040

Diru-laguntzak eta hobariak. Langabetuek matrikula merkeago.

Erronkak garatuz hasi dute ikasturtea Maristak ikastetxean

Erronka baten bidez, Maristak Learning System ereduaren murgildu da ikastetxea

➤ **HEZKUNTZA** M. Onaindia

Ikasturte hasiera ez da erraza izaten ikasle zein irakasleentzat. Pertsona eta ordutegi berriak, antolaketa... Aldagai horiek ahalik eta era errazenean eta atseginenean gainditzeko eredu bat jarraitzen dute Durangoko Maristak ikastetxean. Ikasleak taldeka banatzen dituzte, eta guztiei erronka berbera ematen diete. Martitzen goizean egin zuten jardunaldi berezi hori, eta ikasleei hurrengo eskatu zieten: espaziora helduko litza-tekeen gailu edo tramankulu baten prototipoa sortzea. Talde horiek ikasturte osorako dira, Hostaizka Sainz komunikazio arduradunak azaldu zuenez. Erronkak edukiko dituzte, ziklo batzuetan etengabe eta beste batzuetan tarteka. "Ikasturte osoan talde-lana eta kreatibitatea landuko dituzte".

Gailuak barruan fikziozko pilotu bat eroan behar zuten, urez betetako puxika bat kasu honetan. Makiltxoak, kartulina bat, tutu bi, soka bat, itsasgarria eta

zabor poltsa bat eduki zituzten gailua eraikitzeko.

Gainera, Maristetan erronken arabera lan egiteko ohitura daukate. Beraz, hasierako jardunaldiak lan estilo horretan murgiltzeko balio izan zuen. Europa mailan lantzen den sistema bat ikastetxera egokitu, eta Maristak Learning System izenagaz bataiatu du ikastetxeak. Ikasleek gainera, Durangaldeko enpresen beharrak ere kontuan hartu dituzte sistemarako.

Goizeko 08:00etan hasi zuten jardunaldia, eta 10:00ak arte tal-

deak osatzen eta antolatzen ibili ziren. Horren ostean, 12:00ak arte, zelako prototipoa egin aztertu zuten. Hainbat aukera landu, eta taldeko azken prototipoa izango zena hautatu zuten. Gero, ikas-kideen aurrean proiektuaren alde egin zuten, eta guztien artean onena aukeratu zuten.

13:00etan patioan elkartu ziren guztiak, diseinatutako prototipoak praktikan ipintzeko. Irakasleek prestatutako katalpulta batzuetan sartu zituzten prototipo hegalaria, eta helburua sare bat pasatu, eta ontzi batean jaustea zen; gainera, fikziozko pilotuak "bizirik" irten behar zuten. Ez zen hegaldi perfekturik egon, baina hurreratu zirenak bai. Batxilergo teknologikoa euskaraz hasi dutenak eta Automatizazio eta Robotika arloko ikasleak izan ziren irabazle.

500 bat ikasle daude aurrean Maristak ikastetxean, eta ikasturte berria ikuspegi ekintzaileagaz hasi dute. Jarrera bera mantentzen saiatuko dira eguneroko erronka berrien bidez.

*"Talde-lana
eta
kreatibitatea
landuko
dituzte"*



Ikasle bat, prototipoa jaurti ondoren, hegaldiari begiratzen.



Jardunaldiko irabazleak, ikastetxeko arduradunekin..

IK Iurreta kopistegia

**%15eko
deskontua
testuliburuetan**

**ESKOLARA
BUELTA**

**ESKOLA MATERIALEAN
ESKAINTZA ZABALA**

**IMPRESIO DIGITALA
DISEINU GRAFIKOA**

Bidebarrieta, 1 · 48215 IURRETA
Tel.: 946 811 070 · info@iurretakopi.com

Kids&Us, metodologia berritzailea ingelesa garaiz ikasteko

Metodo honen bidez, urte beteko haurrak era global batean gerturatzen dira hizkuntza berrira



Ipuin kontalaria
'Cowboys & Indians'

Etor zaitez ipuinak ingelesez gozatzen

- Irailaren 13an, larunbatean
- 12:00etan eta 13:00etan
- Durangoko Liburutegian Komentukalea, 8

Kids&Us-i buruzko datu batzuk

- Sorrera urtea: 2003
- Ikastegi kopurua 2014-2015 ikasturtean: 208
- 2014-2015 ikasturtean irekitako ikastegi kopurua: 52
- 2014-2015 ikasturterako aurreikusitako ikasle kopurua: 50.000 baino gehiago
- Zortzi herrialdeetan dihardugu: Espainian, Andorran, Frantzia, Italian, Belgikan, Portugalen, Txekiar Errepublikan eta Mexikon
- Euskadin dagoen ikastegi kopurua: hamabost (bi Araban, zazpi Gipuzkoan, sei Bizkaian)

> INGELESA

Ama hizkuntza ikasten dugun era berean ingelesa ikastea. Hori du abiapuntu Natalia Perarnau filologoak ingelesa ikasteko duela hamar urte baino gehiago sortutako metodologia berritzaileak. Datorren ikasturtean, Kids&Us metodologia 50.000 haur baino gehiagorengana helduko da bere eskola sarearen bidez; gaur egun, 200 ikastegi baino gehiago ditu.

Ikasbide honek sistema tradizionalarekiko haustura dakar, eta, horrela, umeek hainbat hizkuntza ikasteko familiek duten beharrianari erantzuna ematen dio.

Ingelesa urte batetik aurrera

Kids&Us metodologia ama hizkuntzaren jabekuntza prozesu naturalean oinarritzen da: hu-

tsik egin ezin duen prozesua da, eta ordena jakin, natural eta berezko bati jarraitzen dio gainera. Gure ama hizkuntzaren jabekuntza, lehenik eta behin, entzun egiten dugu; gero, entzundakoa ulertu; ondoren, hizketan hasi; eta, azkenik, urte batzuk igarotzen direnean, irakurri eta idatzi.

Kids&Us metodoaren bidez, urte 1 duten haurrak era global batean gerturatzen dira hizkuntza berrira, murrizketarik gabe, baina euren adinera egokitutako egoerekin eta testuinguruekin.

Jolasen, ipuinen, abestien eta dantzen bitartez erabateko murgiltze linguistikoa egiten dute, eta, horren bidez, adin goiztiar horietan umeek duten ikasteko ahalmen guztia aprobetxatzea da metodologia honen helburu nagusia.

Geure material didaktikoa

Eskolak iraun arteko une bakoitza dago planifikatuta, eta Kids&Us-en Pedagogia Sailak garatutako material pedagogiko eskusiboak erabiltzen indartzen dira eskola horiek. Gainera, mailarik aurreratuenetan, material horiek egokituta daude ikasleak azterketa ofizialetara aurkeztu daitezela.

Kids&Us versus metodologia tradizionala

Bartzelonako Unibertsitateak 2012an egindako ikerketa batek ziurtatzen du ikaskuntza sistema honek onura handiagoak dituela metodo tradizionalak baino; ondorioa honako hau da: ingelesa Kids&Us-en ikasten duten haurrek gaitasun hobeak dituzte hiztegi, gramatika, ahoskera, entzumen, irakurmen eta mintzamen mailan.



Ingelesa 1. urtetik aurrera

Kids&Us Durango
Durangoko Plateruen Plaza, 8
48200 Durango
T. 609 533 343 / 946 570 113
durango@kidsandus.es



Full
YOUR ENGLISH

Kids&Us
school of english

EROSKI
zurekin

BERRIRO ESKOLARA

Balioak ikasten

2014-2015 ikasturtea

Tarregako antzerki jaialdian estreinatuko du 'Andante' Markeliñek

Zornotzako Markeliñek Kataluniako FiraTàrrega jaialdian estreinatuko du 'Andante', asteburuan

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Tarregako (Lleida) FiraTàrrega kale antzerki jaialdian aurkeztuko du, asteburu honetan, *Andante* obra Markeliñek. Jaialdi entzutetsuan estreinatuko dute Zornotzako antzerki taldekoek azken hilabeteetan prestatzen jardun diren lana. Arte eszenikoen alorrean unean uneko proposamen berritzaileak eta konbentzionalak ez diren lanak ezagutarazteko gunea izan da 1981. urtean sortu zutenetik Katalunian ospatzen dute feria hori. Antzerki konpainientzako euren lana atzerrian zabaltzeko aukera ere izaten da Tarregako jaialdia.

Kaleko antzezlanak da Markeliñeren *Andante*, eta estreinaldi ofizial honen aurretik, besteak beste, Durangoko udako programazioaren barruan, Berrizko jaietan eta, joan zen asteburuan, konpainia sortu zen herrian, Zornotzan, aurrestreinatu zu-

ten antzezlanak. Antzerkia jaialdian aurkeztu orduko, publikoagaz probatu dute saio horietan; entsegu irekiak izan dira, publikoaren erantzuna zein den ikusi, eta moldaketak egiteko.

1981. urtetik ospatzen dute FiraTàrrega, arte eszenikoen unean uneko proposamenen erakusle

Gerretako zapata anonimoen istorioak kontatzen ditu obrak modu poetikoan

Askotariko arrazoiengatik euren etxeak utzi behar dituztenei buruzko obra sortu dute, eta 50 minutu irauten ditu. "Bizitza



Maskarak darabiltzate antzerki obrako aktoreek, eta berbarik bakoa da antzezlanak.

bilaketa gisa" planteatzen dute *Andante* obran.

Kaleko antzezlan "ibiltaria" da *Andante*: ez darabilte berbarik, baina bai umore ukitu zaindua eta maskarak. Gerretako zapata anonimoen istorioak modu poetikoan kontatzen ditu obrak: "Ahaztu behar ez genituzkeen istorioak", antzerki taldearen berbetan.


Markeliñek bezala, Euskal Herriko Kukai dantza taldeak ere bere azken lana estreinatuko du Tarregako jaialdian.



Durangaldeko hainbat herritan aurkeztu dute obra. Txelu Angoitia.

'My stuff' dokumental finlandiarragaz ekingo diote Elorrioko Hilean Behin zikloaren ikasturteari

Elorrioko Iturri kultur etxean eskainiko dute dokumentala, datorren eguaztenean, 19:30etik aurrera



Filmaren eszena batetik harturiko irudi bat.

> ZINEMA

Irailaren 17an, 19:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxean emango dute iraileko dokumentala. Hilero gai sozialei buruzko dokumental bat ekartzen duen Hilean Behin zikloaren barruan, *My stuff* (Nire gauzak) filma ekarriko dute 2014-2015 ikasturtea zabaltzeko. 2013an, Finlandian sorturiko filma da, Petri Luukkainen zuzendariarena.

Petri izeneko 26 urteko mutilaren istorioa kontatzen du filmak; neska-lagunak bera-gaz zeukan harremana apurtu du, eta galduta dago Petri, krisi existenzial bete-betean: hipote-

ka itzela eta etxea gauzak betea dauzka protagonistak, baina bizitza hutsik daukalako sentipena ere bai. Falta duena zer den bilatzeko, bizitzan benetan inportantea zer den jakiteko, esperimentu bat egingo du Petrik: urtebetea bere gauza guztiak biltegi batean gorde, eta egunean bat baino ezingo du erabili. Guztiz debekatu dio bere buruari, gainera, ezer berria erostea.

Neska-lagunak beragaz zeukan harremana apurtu du, eta krisi existenzial bete-betean dago Petri

Zoriontasuna bilatzeko, bere egunerokoa berreraikitzen saiatzen den mutil gaztearen istorioagaz abiatuko dute dokumentalen ikasturtea, Elorrion.

A. Urreta
podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurritza egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA



**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin eustea, traumatologia, kirola, auto istripua, drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...

Iturriza, 44 - behea ezkerre
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13



GOIATZ MURUA
PODOLOGOA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOA

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

148/13

ESTETIKA



AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

*Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2 - C behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

OPTIKA



ZENTRO OPTIKOA

Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren ikusmena, ikusmen terapia, Ikusmen terapia, erreflexu primitiboak, Syntonic fototerapia, SENA estimulazio neuroauditiboa.

NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13

PEDAGOGIA



**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63




**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**



Mendiaz, bizikletaz eta abenturaz gozatzeko inizatiba hartu duten Otxandioko gazteak

Jon San Vicentek eta Martin Astigarragak bizikleta jaitzierak egiteko zirkuitu bat sortu dute herriko baso batean



Jon San Vicente eta Martin Astigarraga, Arkotxe inguruan.

► BIZIKLETA M. Onaindia

Otxandioko plazan agertu dira Jon San Vicente (Otxandio, 1997) eta Martin Astigarraga (Otxandio, 1995), euren zaletasuna zein den erakusteko prest. Lehena bizikletagaz, bigarrena ez. Izan ere, duela aste batzuk, lasterketa batean lehiatzen zebilela, jausi egin zen, eta hankan bihurritu bat egin zuen Astigarragak. Mendiko bizikletagaz ibiltzen dira, baina muturreko estilo zail batean: jaitzierak praktikatzen dituzte. Duela lau bat urte basoan praktikatzeko pista edo zirkuitu bat egokitzen hasi ziren. Arkotxe mendi magalean daukate euren txokoa, eta harantz abiatu dira kazetariagaz batera. Gazteak izan arren, argi dago inizatiba daukatela; ez dira geldirik egoteko mutirik.

Zirkuitua egitea zelan okurritu zitzaion azaldu du Astigarragak: “Bizikletan ibiltzeko zaletasuna aspalditik daukagu. Behin hona igo ginen, eta hemen egitea erabaki genuen”. San Vicentek azaldu duenez, txikitatik

ibili dira hara eta hona bizikletagaz: “Espaloiak-eta saltatzen hasi ginen. Eta, gutxika-gutxika, azkenean mendian amaitu dugu”. Herrian “akrobaziak” egiten ibiltzen zirenekoa gogoratu du Astigarragak: “Jendea ez zitzaion asko gustatzen”. Baina, San Vicentek eginiko

“Espaloiak-eta saltatzen hasi ginen. Eta, gutxika-gutxika, azkenean mendian amaitu dugu”

hausnarketaren arabera, orain normalago ikusten ei dute.

Aurtengo Otxandioko jaietan erakustaldia egin zuten gazte biek. “Pentsatu baino jende gehiago agertu zen”, esan du San Vicentek. Herritarren aurrean praktikatzea zerbait desberdina izan zela aitortzen dute; baina, bakarrik aritzea baino hobeto ei zen.

Abenturazale sena

Mendiko jaitzieretan, abiadura handia hartu ostean jausiz gero, mina ere tamaina berekoa izan ahal da. Arriskutsua dela ezin ukatu. Horregatik, abenturazale sena beharrezkoa da. “Apu bat zoratuta egon behar duzu, baina buruagaz”, esan du barrez Astigarragak. Gainera, hain gazteak izanda –17 urte dauzka San Vicentek eta 19 Astigarragak–, etxeokoa konbentzitu behar izan dituzte. San Vicentek kontatu du lehen jarrera ezkorra zutela: “Zer edo zer gertatuko zitzaidala esaten zidaten, baina pare bat bider ikusi naute, eta dagoeneko ondo hartzen dute”.

Lehian ere bai

Aurten hasi dira lasterketetan parte hartzen. Sei proba daude Euskadiko Txapelketan, eta Espainia mailan ere badaude hainbat. Aurten presa barik dabilta, eta hurrengo urtera begira daude. Legutión (Araba) izan zen probetako bat, ia etxean. Ondo ezagutzen dute eremua, eta, be-

bizikleta orokorrean ulertuta baizik. Gazteek diotenez, Otxandion badago mendiko bizikletan ibiltzeko zaletasuna.

Eskulanean

Euren eskuekin sortu dute jaitzierak egiteko zirkuitua. Lau bat urte dira Arkotxe magaleko basora lehenengoz etorri zirela,

Tranpolinen tankerako oholak ezarri dituzte. Paletak, egurrak, lurra... Eskulan itzela nabari da”

baina lana ez dute modu jarraituan egin. Aste batzuetan egunero igo izan dira beharrera, beste sasoi batzuetan lantzean behin. Goitik behera minutu batean jaisteko moduko pista bat dago. Tarte batean, gainera, bitan zatitzen da, eta ibilbide bi egiteko aukera eskaintzen du. Beherantz joan ahala, hor ikusten dira bihurguneak eta jauziak. Tranpolinen tankerako oholak ezarri dituzte. Paletak, egurrak, lurra... Eskulan itzela nabari da.

Azkenean heldu da praktikatzen ordua. Astigarraga min hartuta dagoenez, San Vicente bakarrik igo da bizikletara, eta hor dator aldapan behera: bihurgune bat, bigarrena, eta salto! Airean hegaz, ondo lurreratu da, ezusteko barik. Amaitu ondoren, etxerako ordua da, hurrengo abentura eta adrenalina dosira bueltatu arte.



Jon San Vicente, eurek sortutako zirkuituan jauzia egiten.

Iñaki Lejarreta Zirkuitua inauguratu dute Berrizko Berrizburu inguruan

Zirkuitu nagusiagaz batera, hasiberrientzako beste bat diseinatu dute



Iñaki Lejarretaren senitartekoak eta Orlan Isoird alkatea zirkuituaren inaugurazioan.

> BIZIKLETA Joseba Derteano Joan zen domekan, Iñaki Lejarreta Zirkuitua inauguratu zuten Berrizko Berrizburu. Mendiko bizikletaz ibiltzeko zirkuitua da Lejarretaren lagun eta senideen artean sortutakoa. Eguraldi txarrari aurre eginda, jende asko batu zuen ekitaldiak; Lejarretaren lagun eta senideez gainera, udal ordezkariak ere batu ziren. Zirkuituaren berri

ematen duen panela bistaratuta inauguratu zuten. “Iñakik askotan egiten zituen bideak aintzat hartuta diseinatu dute, eta berak hainbeste maite zuen mendiko bizikleta sustatzeko ezin hobe da”, adierazi zuen Orlan Isoird alkateak ekitaldian.

Zirkuitu nagusiak 3,8 kilometro ditu: bost sektoretan banatuta dago, eta Berrizburu hasi eta amaitzen da. Ibilbidea “tek-

nikoa eta dibertigarria” dela adierazi dute dagoeneko zirkuitua probatu dutenek. Mendiko bizikletan dibertitzeko osagai guztiak batzen ditu: gunee azkarak, teknikoak, bihurtuneak, txirristak... Zirkuitu horregaz batera 1,7 kilometro dituen beste laburrago bat ere diseinatu dute. Iñaki Lejarreta Gazte Zirkuitua izeneko hori hasiberriei zuzenduta dago.

‘Iñakiren bideak’ egin, eta Berrizko inauguraziora

Iñaki Lejarretaren Euskal Herriko ibilbiderik gustukoenak batu, eta *Iñakiren bideak* izeneko ibilbidea (400 km) sortu zuten iaz hainbat norbanakoren lanari esker. Ondoren, hainbat herritako lagunen laguntzagaz ibilbidea osatu zuten. Aurtengo bigarren aldia joan zen asteburuan egin zen. Berrizburuko helmugara heldu eta gero inauguratu zuten Berrizko zirkuitua.



Iñakiren Bideak ibilbidean parte hartu duten lagun bi Berrizburuko helmugan

Saskibaloian Baqué torneoa jokatu dute asteburuan

> SASKIBALOIA

Zapatuan eta domekan emakumeen Baqué torneoa jokatu dute lau saskibaloit taldek, Landako kiroldegian. Etxeko Tabirako-Baqué taldeagaz batera, Lapurdiko Anglet Cote Basque Basket, Gipuzkoako Zurt Iraurgi eta Bizkaiko Leioa taldeek hartuko dute parte.

Zapatuan finalerdiak jokatu dituzte. Lehenengo, 16:45ean, Leioa eta Zurt Iraurgi neur-tuko dira; ondoren, 18:30ean, Tabirako Baqué eta Anglet. Irabazten duten talde biak finalerako sailkatuko dira. Domekan, 10:00etan, hirugarren eta laugarren postuak erabakitze-ko partidua jokatu dute, eta 12:00etan finala hasiko da.

Ariznabarreta onena Beasainen, eta Ajuria bikain Katalunian

> MENDI LASTERKETA

Joan zen domekan, Usurbera Igoera mendi lasterketa lehiatu zuten Beasainen. Oier Ariznabarreta durangarra izan zen probako 4,7 kilometroak osatzen aurrenekoa. Horretaz gainera, orain hamar urte Juan Mari Garinek ezarritako marka 40 segundoan hobetu zuen.

Bestalde, Aitor Ajuria (Otxandio, 1999) mendi lasterketen munduan etorkizun oparoa izan dezakeela erakusten ari da aurtun. Domekan hirugarren sailkatu, eta podiumera igo zen Kataluniako Berga herrian antolatutako 15 kilometroko mendi lasterketan. Lasterketa hori Salomon Junior Traileko hirugarren eta azkenengo proba izan zen. Aurreko proba Zegama-Aizkorri lasterketa izan zen (10 km izan zituen, Bergakoak baino 5 gutxiago), eta Ajuria bigarren sailkatu zen.

ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez

Errugbia

Denboraldi berria

Urtero bezala, denboraldi berria ate-joka daukagu. Berritasun ugarirekin datorkigu, gainera.

Lehenengo aldaketa taldeen osaketan dator. Ohorezko B Maila berregituratu dute. Lehen bi multzo zeuden hamar; taldez osatuta, egun, orde, lau multzo izango ditugu, hamabi taldez osatuta. Horrek hainbat ondorio dakartza: batetik, gertutasuna, hau da, bidaiak ez dira hain luzeak izango, A Coruña-ko partidua kenduta. Bestetik, maila apalagoa izan daiteke, baina hori ikusteko dago. Eta, azkenik, hamabi talde egoteak lehiaketaren iraupena luzatzea dakar; iazkoarekin alderatuta, lau partidua gehiago jokatu direlako.

Bigarren aldaketa gidaritzan daukagu. Peio Diez Urkidik bi urte eman ditu gure artean, eta bere orde Durangora bueltatu den Ines Etxegibelek hartu du taldearen ardura. Bere lehenengo urratsak Durangon eman zituen, ondoren, Katalunia aldera joan zen, eta azken urteak Espainiako emakumezkoen entrenatzaile lanetan eman ditu Inesek. Fisa izango du laguntzaile.

Dirudienez, taldea indarberrituta daukagu: gazteak gogor datoz, eta beteranoak beraien onena emateko prest daude. Larunbatean dute aurreneko hitzordua Santanderren, Independienteren aurka; Ohorezko Mailan du lehen taldea, eta bigarren taldekoak gogotsu irtengo dira.

Itxaropen handiak ditugu durangarrengan, dakitena egiteko gai badira, une gozoak eskainiko dizkigute. Landakora hurbiltzea besterik ez daukazue!

urtiaga
Proiektu eta Erreformat, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU, AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea, 3 • Tel.: 946 814 474 • Faxa: 946 215 374
E-maila: urtiaga@urtiaga.info • MATIENA-ABADIÑO

GAER  **DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Motorretan *nagusi.*

➤ EcoBoost motorra

Injekzio zuzen bidezko hiru zilindroko gasolina motorra. Banaketa aldakorra. Turbokonpresorea. 100 kilometroko 4,7 litro baino ez ditu kontsumitzen. Zure lagunen begirada inbidiatsuak jasaten jakitea baino ez zaizu faltako. EcoBoost motorra: diesel batek duen onena, gasolina baten prezioan.

FORD FOCUS

12.990€



ford.es

FORD KONDIA
Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK
Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135

Ford Focus gama batez besteko kontsumo konbinatua 4,7tik 7,2 litroa 100 kilometroko. CO2 emisioa 109-169 g/km.

EcoBoost motorrak %20ra arte hobetzen ohiko motor baten kontsumoa. Focus Trend 1.0 Eco Boost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW) 5P paq. Int. eta paq. Style-ekin. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit' kanpainaren bitartez finantzitzearen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modeloak ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin.

Ford.es

Afizionaturik onenekin, eguenean hasiko da Olazar txapelketa

Olazar Pilota Txapelketa eguenean hasiko dute; binaka hamasei bikote eta lau t'erdian hamasei pilotari ariko dira Zaldibarko pilotalekuan Gabon zaharrak arte



Datorren eguenean hasiko dute Olazar txapelketa Zaldibarren. Julen Uribe

> ESKU PILOTA

Olazar txapelketan parte hartze-ko gonbidapenak luzatu, eta pilotari-ek segituan baiezkua ematea esanguratsua da. Gaur egun, Bizkaian zein Euskal Herrian antolatzen den txapelketarik prestigiotsuenetakoa da Olazar, eta pilotari-ek badakite hori. Horregatik, beste behin ere, amateur mailako pilotari-rik onenen topaleku bihurtuko da Zaldibar datorren eguenetik aurrera.

Binaka eta lau t'erdian jokatu-ko da Olazar txapelketa: hama-sei bikote eta hamasei pilotari. Eguenero, 21:30ean, jokatu-ko dira partiduak, eta, urtero legez, abenduaren 31n jokatu-ko dute finala. Datorren egueneko lehen jardunaldian abadiñar bi aritu-

ko dira: Aitor Arabiourrutia lau t'erdian –Albizuren aurka–, eta Asier Aspuru binaka, Lopezegaz bikotea osatuta; Aketza-Aizpuru bikotea izango dute parez pare. Durangaldeko ordezkari gehiagok ere parte hartuko dute txapelketan: Igor Azpiri elorriar-rrak eta Andoni Aldape mallabitarrak binaka, eta Gorka Otadui berriztarrak eta Aitor Elordi mallabitarrak lau t'erdian.

Binaka zein lau t'erdian ez dago faborito argirik. Pilotari eta bikote asko daude irabazteko aukerekin.

Cafés Baqué hasi dute

Asteon hasi du bere bidea kadete eta gazte mailako (hamasei pilotari bakoitzean) Cafés Baqué

txapelketak. Iaz hasitako bideari jarraituta, Bizkaiko pilotari-ek bakarrik parte hartuko dute. Galdakaon jokatu-ko lehen jardunaldian, Durangaldeko pilotari bi aritu ziren gazte mailan: Mikel Goiria (Zornotza) eta Gontzal Azkarraga (Elorrio). Azkarragak irabazi egin zuen, eta txapelketan aurrera jarraitzen du; Goiriak, aldiz, galdu egin zuen, eta kanporatuta geratu da.

Durangaldeko beste sei pilotari-ek ere jokatu-ko dute txapelketa: Estefen Lizundia (Zornotza), Paul Sagasta (Elorrio), eta Daniel Rodriguez (Atxondo) kadeteetan, eta Edu de Zabala (Durango), Ekaitz Andueza (Iurreta) eta Eric Lizundia (Zornotza) gazteetan.

Otxandioko martxarako izen-ematea 18ra arte

> MENDIKO BIZIKLETA

Otxandioko mendiko bizikleta martxak hamargarren aldia beteko du irailaren 20an. Ibilbide bi prestatu dituzte. 09:30ean hasiko den ibilbide luzeak (40 km) San Martin, Motxotegi, Nebera, Mirugain eta Kondebasotik zehar eramango ditu parte-hartzaileak. Ordu laurden geroago hasiko den laburra (17 km) Pre-sazelai, Gordobil eta Gomilatz inguruetatik igaroko da. Izen-ematea aurretik (www.otxandio.net webgunean) zein egunean bertan egin daiteke. Aurretik egitea merkeagoa da: 10 euro federatuak, 12 gainerakoak. Irailaren 18a da azken eguna.

zein mutil. Denek egin ahal izango dute euren saiakera xabalina jaurtiketan edo korrika. Azken batean, atletismoak modalitate erakargarri asko dituela erakutsi gura du Durangoko atletismo klubak.

Sariak ere egongo dira. Eroskin erosketak egiteko deskontu batzuk banatu-ko dituzte parte-hartzaileen artean, eta 30 metroko esprinta azkarren egiten duenak zein xabalina urrunen botatzen duenak asteburu bat landetxe batean igarotzeko saria irabaziko du.

Atletismoa kalera gerturatuko dute bihar

Durango Kirol Taldeak atletismoa ezagutarazten jardungo du Hiper Eroskiko aparkalekuan

> ATLETISMOA

“Jendea hurreratzeko zain egon beharrean, geuk hurreratu gura dugu herritarrengana”. Durango Kirol Taldeko Orkatx Beitiak horrela definitu du bihar Abadiñoko Hiper Eroskiko aparkalekuan antolatuko duten ekintzaren funtsa. 11:00etatik 14:00etara *vortex* jaurtiketa (gaztetxoentzako xabalina) eta 30 metroko esprint erakustaldiak egongo dira.

Baina jendea begira egon beharrean, parte hartzea gura dute; heldu zein gazte, neska

Partaidetza zabala aurtengo zesta torneoan

Zapatuan Durangoko zesta-punta torneoaren 31. aldia hasiko dute Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan

> ZESTA-PUNTA

Durangoko zesta-punta torneoak aspaldiko urteetako partaidetzarik zabalena izango du; Euskal Herriko, Frantziako eta Kataluniako hemeretzi klubetako hogeik bikote lehiatuko dira.

